

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

118/2019 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, baimentzen duena Inmaculada Galerón Iglesias andrearen behin-behineko izendapena, Dulantziko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan

Dulantziko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, udaleko idazkari Vanessa Domínguez Casal andrea oporretan ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretako funtzionario Inmaculada Galerón Iglesias andrearen behin-behineko izendapena egitea.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betetz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Inmaculada Galerón Iglesias andrea Dulantziko Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, zeregin horretan jardun dezan 2019ko apirilaren 15etik 24ra bitartean (biak barne), titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea interesatuari, Dulantziko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 25a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ